

"PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA, DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

Franqueo concertado
N.º clasificador 34/60

DELEGADO DIPUTADO: M. J. URMENETA

Bosgarren Urtea — Pamplona, Febrero 1970 — Otsaila, Iruña — 48 gn. zenbakia

DIRECTOR: J. E. URANGA

GUREA DELAKO

Ideki berria zen herrian haur txikien ikastola eta, sei zazpi urteko mutil koskorrek ere nahi zuten euskeraz idazten ikasi. Beren burutik atera zen gauza eta beren buruz ziren joan andereñoa ikustera. Ba ziren ogeita amarretik gora. Etxarrin gertatua.

Andereñoak baietz erantzun zien; berak erakutsiko ziela. Diru gora-bera atera zen gero eta ikasleak zioten, ingles ikasteko ilabetean horrenbeste ordaintzen ba zuten, euskera ikasteko ere berdin ordaindu beharko zutelara. Gehien iritzia, baño ez denena:


—Nik uste ez ginukela pagatu behar, esan zuen batek.

—Nolaz, ez!

—Euskera gurea delako!—
Etzuen besterik esan eta nairiko zen. Astakeri bat esan zuelakoan lotsaturik atera zen gizajoa.

Zer egia! Hainbeste gauza zaizkigu zor geureak direlako! Haurren begi zorrotza...

—oOo—



Aundiekin beste aldera gertatzen da edo gertatu izan da. Geurea izatea nahiko zen anakzpian sartzeko. Zenbat maisuk ez dute eskolan euskeraz mintzatzeatik negar eginarazi. Zenbat guraso euskaldunek ez diete haurreri euskeraz erakutsi; gurea delako...

—oOo—

Zeru lurrak gu zapaltzeko alkar hartuak zirela esango nuke nik. **Euskal-herriko Ama Birjin ederren izenak santutegian sartzeko zer gurutze bidea ez dugu ibili behar izaten! Garbiñe, Nekane ta bes-**

te izkuntza guzitan erabiltzen diren esaera jatorrak ez dira oraindik gure artean on-hartuak. Erderazko itzulpena ba dutela esango dizue; eta **Purificación** edo **Dolores**-ekin dabilta munduan Eskual-herriko alabak.


Aunditzerik izan ezten haurretako jotzen gaituzte nurbait; hortik gure eskubide guzieren ukatzea. **Mila urte berekin dituen Unai izena ez daiteke gaurko gizon batentzat on. Eta Ignacio edo Iñaki munduari eman dizkion Eneko zaharra bazartua da, gurea delako.** Bakarrik ibiltzen ikasi ez duten sator itsuak zaizkit gure izen gaixoak, beste izen bat itsasten dietela ikustean. Itsuak behar du, ez abarrikatzeko, laguntza. Adiskide onak ditugu munduan.

—oOo—

Baño, gure herria aurrera dijoa. Iñoiz baño gehiago, gaurko giroa gure alde dago, eta gu nor balin ba gera sator zulutik aterata argian egin behar dugu bizia. Eztakit zereगतिक, etsaieri baño bildur gehiago diotan nik gure motzkeriari.

Haur baten begi garbiak ikusi edo sumatu dutena esango nieke nik askori: **gurea delako, behar ginuke euskera ikasi... eta mintzatu. Gureak direlako, oitura onak ez galdu; eta gurea delako, euskal herri-jakintza goi-goieneko mailara goratu.** Ez dut uste herri askok eman dezaketean, gure inguruan munduari, hain ikasgai zaharren soka muturra. Haurretatik ateratzeko adina ba dugu beintzat.

J. M. S.




Se autoriza la reproducción e investigación.
© GOBIERNO DE NAVARRA

EUSKAL IZENAK

Guraso asko dira bataioko garaian euskal izenen berri ez dakitenak. Baditugu jatorrak. Asko dira ta denak batean ematea ez da aisa. Pixka pixka jakinaraziko ditugu. Hona hemen euskal herriko Ama Birjinen izenak:

Agirre (Gorliz)
Aitziber (Urdiain)
Alxarte (Abadiano)
Ainhua (Ainhua)
Andikona (Berriz)
Andion (Mendigorría)
Aintzina (La Antigua)
Areitio (Mallabia)
Arregine, Erregiña (s. X-XV)
Arrako (Isaba)
Arizaga (Iturmendi)
Arrigorria (Arraiza)
Arkiloain (Sarriés)
Artiza (Iza)
Arantzazu (Oñate)
Arrate (Eibar)
Azitain (Eibar)
Askua (N. S. de)
Axpe (N. S. de)
Ayala (N. S. de)
Aitzpea (Aya)
Berezi (Busturia)
Basaba (Unciti)
Beatasis (Zúñiga)
Begoña (Bilbao)
Barria (Bilbao)
Doniansu (Cizur)
Dorleta (N. S. de)
Edurzeta (Oka-Ibarruri)
Erdozia (Izurza)
Erkuden (Altsasu)
Ermin (Esteribar)
Eunate (Muruzabal)
Estibaliz (Vitoria)
Ezozia (Placencia de las A.)
Gorritiz (Lumo)
Goikuria (Yurreta)
Idoya (Isaba)
Isasi (Gordejuela)
Iratxe (Ayegui)
Iziar (Deva)
Idurre (Motrico)
Izaskun (Tolosa)
Idoibalzaga (Errigoiti)
Itxaso
Iruña (N. S. de)
Iruña (N. S. de Trespuentes-Alava)



Kodes (Toralba)
Larraitz (Abalcisqueta)
Loinaz (Beasain)
Leire (Navarra)
Lasagain (Anue)
Legarra (Olza)
Legarda (Mendavia)
Leorin (Deikaztelu)
Lierni
Mendi (Estella)
Muskilda (Otsagi)
Nora (Sangüesa)
Olatz (Azpeitia)
Oitia
Oskia (Iza)
Sokorri
Urrategui (Azcoitia)
Uba (Alza)
Ugarte (Amezqueta)
Urrexola
Usua, Usue (Ujué)
Ula, Uda
Uribarri (Durango)
Urretxa (Zuya-Alava)
Zalao (Orozko)
Zabal (Portilla-Alava)
Zuberoa (Garde)

Ama Birjinen izenak diranez «Mary» aurretik dutela joan ditaizke; edo berak soil soila, ezer besterik gabe. Elizaren aldetik ez dago eragozpenik.


Amar urte baino lehen Euskal-herriko haur gehienak euskal izenekin bataiatuko omen dira. Guk nahi ba dugu lehenago ere bai.
S.

AGATE DEUNA'ren Euskal Kantari-taldeak Iruñean



Urteroko oiturari jarraituz aurten ere Iruñeko auzo eta karriketarik har AGATA DEUNA'ren Kantari-taldeak atera ziran.

Hona hemen neska multzo ederra kantatzen. Neska hauen aurrean gazkian (fotoan) ikusten ez badira ere mutikoak daude. Azken urte uetako eraberriari begira kantari-taldeak neska ta mutillak elkarturik atzen dira. Ongi etorriak izan neskak!



Mas de tres mil niños navarros -vasco-parlantes- en el concurso "Kili-Kili", para su alfabetización

Trajimos aquí la noticia, en «premiere» informativa, del plan de montaje en Navarra de un Concurso titulado «Kili-Kili» el nombre del personaje fantástico que trata con los niños, que tiene la meta buena meta— de que se acabe la triste situación de los niños y jóvenes vascófonos de Navarra, que si hablan y cantan en la «lingua navarrorum», son analfabetos en ella.

Hay una conjunción de intereses para esta tarea de cultura popular, indudable: el vivo deseo de todos los científicos que en el mundo, más cada día se preocupan del idioma vasco. También, la línea del Ministerio de Educación y Ciencia del gobierno español, que considera, valora, nuestra lengua vernácula, —el Libro Blanco y la Ley de Educación en estudio lo ponen de relieve, además de las manifestaciones del titular Villar Palasi— y siente como una obligación cultural el que se alfabetice a los niños y agradece cualquier tarea que se haga en ese sentido. Finalmente, nuestro propio acento, porque aparte la valoración internacional o nacional del idioma vasco, está el hecho de que es nuestro, que está en nuestra raíz, que con él se han llamado y se llaman nuestros pueblos, nuestros términos, los montes, y nuestros apellidos, y es, gracias a Dios, la lengua familiar de muchos navarros de aquende y allende el Pirineo, y de las provincias vascongadas, a las que se llevó quizá desde aquí, con su vasconización.

EL PROYECTO ESTA EN MARCHA

Podemos decir hoy que, con el amplio patrocinio y dentro de las actividades de ese brazo en pro de la lengua vasca que es «Euskeraren Aldeko Sailla» de la «Institución Príncipe de Viana» de nuestra Diputación Foral, el proyecto está siendo ya una realidad, después de los primeros pasos que con gran éxito, se han dado.

La tarea, entra plenamente en la línea de nuestra Corporación Foral que hace ahora catorce años, constituyó esa sección en «Príncipe de Viana» para realizar un trabajo necesario, urgente, que diga cómo nuestra actual generación, se ha preocupado del problema del retroceso de la lengua vasca y de nuestra responsabilidad en su conservación y recuperación.

Esa tarea, superados criterios absurdos, tiene ya pues, «todas las bendiciones» que debe tener, y es un derecho humano y una obligación nuestra sin duda alguna.

Para desarrollar el Concurso «Kili-kili» que seguirá las fechas de los cursos escolares, Navarra se ha dividido —la Navarra vasco-parlante actual, naturalmente— en cinco zonas, en las que el Concurso es dirigido por un encargado de la zona, que forma parte de la organización general.

RESPUESTA MAGNIFICA

La llamada a los niños y a los padres a participar en este Concurso, a base de escribir paulatinamente, y de ir haciendo ejercicios en unos cuadernos de «Kili-kili» muy bien editados y con gran poder culturalizador, didáctico, ha tenido una gran respuesta: en pocos días de tarea bien hecha —buen planteamiento, eficacia, entusiasmo— más de tres mil niños se han inscrito ya, y habrá muchos más, porque las inscripciones siguen: los carteles, las tarjetas, han voceado el Concurso, y el pueblo vasco-parlante ha dicho sí, de manera rotunda, diciendo cómo latía en él, esa preocupación de alfabetizarse, logrando así una extensión y profundidad en el uso del idioma, y la posibilidad de acceder a las publicaciones en vasco, como lectores primero, como colaboradores después de muchos de los que logren saber leer y escribir en lengua vasca, contribuyendo a su conversación y a su extensión.

La tarea de los niños, en los tres cuadernos previstos para este curso, será calificada por los organizadores, y a su final se premiará con cantidad de viajes, en autocares, de los premiados —los mejores— pa-

Mentalizar al Pueblo, suscitar su colaboración, es básico para lograr la meta

escribe: MIGUEL DE ORCOYEN

KILI-KILI
SARIKETA NAGUSIA

eta gero... euskalerrian zear
iru eguneko eskursioa (sartzearentzat) autobusean
ibilli, ikusi, ikasi
eta sari asko (umetxoarentzat) iru egun
kantaka, dantzan
algetan

150 gaztetxo eterrri ziran udan... urrangoan ZEU?

BEAR-BEARREZKOAK
KARTEA EGIN

cervecera del noriek lagunduta

ra conocer distintos lugares del país.

UNA NECESIDAD INDUDABLE

Así las cosas, y por supuesto que con un acento de gratitud de todos a «Euskeraren Aldeko Sailla» de la «Institución Príncipe de Viana», hay sin embargo, una necesidad urgente, indudable, a la que deben colaborar todos también y destacadamente los medios de difusión, prensa y radio: la de mentalizar al pueblo.

Nada se puede hacer desde niveles oficiales u oficiosos —como bien se ha visto en muchos aspectos— si el pueblo no siente y quiere.

Es preciso que llegue a todos los vasco-parlantes —y a los que no lo son— la consciencia plena del valor del idioma, no solamente como propiedad nuestra conservada a través de los siglos y de todas las dificultades, sino su importancia en el mundo científico, reflejada en la atención mayor que cada día se concede al vasco en Universidades y centros de investigación: si el idioma se perdiera como lengua viva, un baldón, internacional, caería sobre nosotros. Por ello, es básico que llegue al pueblo esa consciencia de la importancia de que sienta y haga por la «lingua navarrorum».

Junto a eso, la colaboración de otro tipo: aunque «Euskeraren Aldeko Sailla» se encargue de resolver la parte económica y la parte técnica de esta tarea de alfabetización, creemos que es conveniente, necesario, que el pueblo contribuya, haga su esfuerzo, muestre viva de que lo siente y lo quiere, que conoce su valor, y desea conservarlo: eso está sucediendo en otras zonas de habla vasca, en las que la tarea no tiene el decidido apoyo que aquí encuentra en la Diputación Foral.

EL TEMA, Y NOSOTROS


Lo que se ha publicado —y lo que se publicará— sobre este tema, en EL PENSAMIENTO NAVARRO, no es solamente una noticia para conocimiento de los lectores. Supone, una postura, no nueva sino permanentemente viva en nuestro periódico como órgano de opinión carlista.

El Carlismo, desde su más honda entraña, a través de todos los tiempos, ha luchado decididamente por el país, por sus Fueros, por el idioma. No es pues, nada nuevo ni menos insólito, que en esta ocasión en la que se emprende con gran estilo y tal respuesta pública, una tarea de alfabetización en lengua vasca EL PENSAMIENTO NAVARRO esté, con entusiasmo, al lado de la tarea.

Bien nos parece que en la misma línea, otras gentes que quizá no sintieron esta preocupación, que quizá pensaron que tenía implicaciones no altas, que la lastraban, se unan a la necesaria corriente de valorar y promocionar la lengua vasca, cuando la serenidad ha llegado a muchos espíritus, y es de celebrar, alegremente, el que un postulado, mantenido siempre en nuestro ideario y nuestra acción, cobre las naturales dimensiones que debe tener, pero también es natural que los de siempre formemos en esa dirección.

Nuestra idea, no es exclusivista, ni lo ha sido nunca, sino tendente a que se extienda y se haga universal entre nosotros, y por ello, esa alegría de que, en este aspecto concreto, como puede suceder en otros, llegue a ser del dominio —y del amor— de todos.

(«EL PENSAMIENTO NAVARRO» egunkaririk artua).



ELIZAREN ITZA

BATIKANOKO II BATZAR NAGUSIA

Eliza gaurko munduan

KRISTO gure Jaunak bedeinkatzen du oparo, karidadearen Jainkozko iturritik sortzen dan maitasuna eta bere elizarekiko maitasun arora antolatzen du. Lengo alditan, maitasun eta zintotasunezko itun batez berexi zuen bezela bere erria Jainkoak, orain gizonen Salbatzalle ta Elizaren senarrak, ezkontzako sakramentuakin santutzen ditu kristau ezkongaiak. Beroiekin gelditzen da gañera Berak Eliza maitatu ta onentzat bere burua eman zuen bezela, ezkonduak dana batek-besteari emanez elkar maite dezaten betiko zintotasunean. Ezkonduen zinezko maitasuna bereganatzen du Jainko maitasunak eta Kristo ta Elizaren irabazieri esker, aberasten da, Jainkoarenganatzeko ezkonduak eta guroso eginkizun bikañenetan, laguntza ta kemena artu dezaten. Sakramentu onek, beraz, indarra ematen diote ezkontzako eta familiaro egin-bearrak egoki betetzeko; Kristoren espiritua, sinismen, itxaropen ta karidadez ornitua, beren bizimoduaren errotzen dakiote, geroago ta santuago egin ditezten Jaungoikoa goestuz.

Orrengatik gurasok beren erakusbide ta familiaro, otoiitzakin aurretik dijoaztenean, santutasun salbazio ta giza-giroko bide erreaxgo opatzen dute semeak, baita etxeko guztiak ere. Ordun aita-amak arduraz saiatu bear dira, religioko arazotan, geienbat, eziera on bat ematen, ortan lenbizikoak dira berak.

Semeak, familiaro zati bizi bezela, gurasoen santutzeari laguntzen ahal diote, aien arretari esker onez maitasun ta konfiantzat erantzunda, aldi txarretan ta batez ere, zartzaroko bakardadean jasota.

Alargunak, ezkontz maitasunaren oroipen ta itzala patxaran dermakitenak aintzakotzat artu bear ditugu denok. Kristau sendia ezkontzatik sortzen da, ezkontzak Kristo ta Elizaren maitasuna adierazten du. Orrengatik kristau sendiak guztien aurrean agertu bear du, Salbatzalleak munduari eragiten jarraitzen duela Elizaren bidez, ikusi eta ikasi dezan munduak senar-emazteen maitasuna, seme-alaben jaiotz ugaria, batasun eta zintotasuna ta etxeko guztien pakea Kristoren ta Elizaren baratzako lore mardulak direla.

ESKVALERRIKO LEIOA

«UHING BERRI» liburua

Liburu berri hau euskal poeta gazteen poesia-multzo bat da. Eibarrereko seme zintzo eta Euskaltzaindiaren idazkari (sekretario) dan Juan San Martin'ek liburu hontan azaltzen diran poesia guztiak bildu ditu. Berari eskerrak, 1930 urtetik aitzinera sortu diran euskal poetak asmatutako barretuak zeuden poesien bilduma bat argira atera da. Berak bereixtu, berak bakarrak bildu eta liburu hontan sartu egin ditu San Martin jaunak.

Beraz «UHING BERRI» izeneko liburuak, bere izenburuak argi, ongi ta garbi aditzera ematen duen bezela, eraberriko poeta gazteen lanak dauzka bere barruan («UHING BERRI», «NUEVA OLA erderaz»). Ogeitabost euskal poeta gazteen poesia bilduma hontan agertzen dira.

Poeta hauetako aunitzek ezdute horaingoz liburu bat argitaratzeko biderrik izan. Beste batzuk berriz oso ezagunak dira gure euskal poesia-alorrean.

«Sociedad guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones» delako Elkartasunak Donostiko «Izarra» izeneko imprentan argitaratu du. Egun ta irurogei orri ditun liburuak ehun ta berrogei pesetako balioa du.

JOSHE ANGEL IRIGARAI'EN LEHENENGO EUSKAL DISKOA

Pozaren pozez jasotako berria: Napparoko seme baten euskal disko baten etorrera.

Joshe Angel Irigarai jaunak bere lehenengo euskal diska atera berri du. Diska hontan agertzen diran lau kantak berak kompondu eta kantatukoak dira. Berak sortu eta ongi abestuak.

Abestien izenak: «URAK DAKARRENA», «BEGIAK», «HERRI BEHERA» ta «MIÑA TA GRINA».

Lau kantu hauen artean «HERRI BEHERA» izenekoaren itzak agertzen ditugu:

Herri behera
Herri behera
daukazu bihotz minbera
(Errepika)
Galurrik ezak
zabalerak
ifar aldeko mendi zuhairsuetan
bezala
begien tristurak
du aurkitzen atsedena.

Zure orru ozena
jota
errotik sorturikako
ahuenta
lehialki eta indartsuki ezazu
bota
eta nekazarien mezu sakona
konta.
(Errepika)

«HERRI GOGO» delakoak izan da euskal diska hau atera duena.

JUAN MIGUEL IRIGARAI'EN BESTE EUSKAL DISKA BAT


Euskaltzaindiko eta Napparoko seme zintzo den Aingeru Irigarai'en beste seme batek bere lehenengo euskal diska argitaratu berri du. Juan Miguel Irigarai jaunak lau kantak diska bat prestatu du. «ALNAHI ZUEN», «ZER NAIZ NI ZU GABE» eta «ARKITZEA» dira kantuen izenak.

Kantari honek lau amoriozko kanta agertu dizkigu.

Ezduz esateko beharrik bi diska hauek, bi nafatar gazte eginikoak baidira, biotza pozez betetzen didatela Besteak bezala hau ere «HERRI GOGO» Etxeak gure eskuetara ekarri du.



IKUSLE



BORDELIA. — Bertsulariak berak egina du etxe au, 1859'an. (L. de Lerchundi'ren argazkia).

LUZAIDKO seme zen BORDEL bertsulariak paratutako «DONOSTIAN SOLDADO» izeneko bertsuak

1823'an Bordel soldado zegoen Donostian. Bere denborako istillu larrienak an ibiliak ditu. Zorigaitzoko egun batez, uda sarreran, beste alderdira pasatu nai izan zuen. Bederatzi lagun ziren, atsaldeko bederatzitan murail azpiko zulo batean sartu zirenak. Nork esan bear zuen salatzailea beren artean izanen zutela!

Zulotik atera erori ziren frantsesen eskutan. An aisi zen aien gurutze-bidea. Erriz erri gutxi jan ta erdi buluzi ibili zirela esaten digu bere bertsutan.

Zenbat aldiz iltzeko etsirik! Egund batez, ehun makilukaldi edo zigorrada, bakoitzaren bizkar gainean eman zituzten. Luzaiden esaten dute Bordeli berrehun tokatu zaizkiola. Bertsutan ez esanagatik, beste anai gaztea berekin omen zen eta, an geldituko zelakoan, biena bere gain ematea eskatu izan behar zuen. Ori bera zion Manezaundik.

Juan Cruz Arrosagaray'ek «Paiuen kantiak» deitzen ditu, eta gazte denboran eginak izan bear zituela, uste du. Soldadotatik itzuli ta laister.

1/ Mila zortzi ehun eta Ogei ta irurian Zerbitzuan ginauden Donostia hirian Liberalitateko Bandera berrian, Hartarik desertatu Inozentkerian, Miserable erori Etsayen erdian.

7/ Bestaren erretoria, Dolore tristia, Miletan aisago da Orari erraitia: Ingurina guzia Etsaiez betia, Miserable zen gure Estremitatia, Ez ginuen dudatzen An desegitia.

13/ Jeneralengana Arribatzen gira Pasaporten artzera Tolosa hirira; Bi jendarmen artian Atseko Ernanira An sala polizian Alojatzen gira, Miserabliak, odre Onaren begira.

19/ Salinas'ko mendira Gira arribatzen, Unibersalak hasi Gure arrobatzen: Ez diru ez arropaik Etzaigu baratzen, Bertzen zaharrak ditu Soinian paratzen, Halako pobrerikan Ez da paseatzen.

2/ Hura zen ekainaren Amabigarrena, Gauazko bederatzia, Partitzeko orena; Konda ahala bana Gehiago du pena; Sofritzia ere ahal da Hala dabilena, Etsaiaren esklabo Munduko abilena.

8/ Parlamenduko bida, Tristeziareki, Etzanik konserbatu Biziak uroski, Gero frantzesetara Juntatziareki, Nezesario zela Juaitia, preziski, Jeneralarengana Gure arrazoineki.

14/ Tolosara arribatu Biharamunian, Ilaren amairu Garren egunian; Zuzenak ginelakotz Opinionian Dekret bat eman zuten Umore hunian Esplikatu gabe zer kausaren gainian.

20/ Unibersal horiek Zer kaballeruak! Gerla bertzek egin ta Soldadu beruak; Gizon mañifikuek Dituzte graduak Herodesen pareko Salbai borreguak. Legerik ez dakiten Jende barbaruak.

3/ Murraila pian sartu Bederatzietan, Kanale bati barna Atera errestan; Bederatzi baginen Konpañia artan, Zenbaitak malezia Zuten beren baitan, Deklaratzera nua Aski doloretan.

9/ Prinzipal hari nion Eskatu garia: «Jauna, otoi barkatu Gure ausartzia! Konpañia badugu Gibela utzia; Desiratzen ginuke Harat laguntzia Konbeni balitzaizu Gutan fidatzia».

15/ Dekretatu zenian Tolosan konpleta, Sententzia emaile Ba zen fornimenta; Nigar iturrietan Iru madamita, Guri ordenatziaz Ainbertze tormenta; Bainen bertzek ereman Ontsa lotu eta.

21/ Bitoria aldera Berehala martxe, Uste ginuen hiltzen Ginuztela hantxe; Gure kontra espantuz Hango dama beltzek, Presentatu ginela Sobera berantxe, Barkamendurik etzela Guretzat oraixe .

4/ Murrailatik atera Ondoko segida Errepartitu ginuen Oro, bana bida: Seinale garbia zen Ez ginela fida, Guardiari erne zauden Azantzer begira. Kontent ginuen bizirik Heltzia zubira

10/ Errepostua fite Prinzipalak neri, Oben egin liola Bere graduari. «Jauna, urrikal zite Gure manerari, Biziaz nahi dugu Berme jarri Deus gerta balakio Zure armadari».

16/ Utzi ginuenian Tolosa gibela, Segur da bihotzian Pena ginuela; Ordenatzen zaguten Heriotze krudela, Anitz pikarderia Egin ginuela, Michelenaren plaza Behar ginuela.

22/ Gobernadoriaren Gana arribatu, Gure manerak oro Hari deklaratu; Kristauaren legian Harek errebitu, Bai eta kordetarik Guziak libratu, Nola bere semeak Harek konsolatu.

5/ Zubira ginuenian, Oro elgarrengana, Presentatzeko lotsa Guardiaren gana; Batek, berak juaiteko Hartu zuen plana; Gu bida gibeletik Beldurrez engana: Arribada hunian Sartzeko orena.

11/ Soldaduak an ditu Manatzen berehala, Konpañiarengana Lagun gintzatela; Zenbaitak uste zuten Hilak gintuztela, Alegariarik zauden Herioa bezala, Oitoitzak guretzako eginik zaudela.

17/ Billafranka herrira Hurbiltzen pausia, Begien bistan daukat Hango presentzia: Lehenbiziko pena Zepuan sartzia, Bigarrena, esperantza Galtzeko bizia, Hobe zela Jainkoari Bihotza altzatzia.

23/ Konsolatu ginituen Kaesa beruan, Eta membro guziak Paratu libruan; Despatxa gintzazkela Etxerat lerruan, Balitz gure eremuko Zonbaiten graduau: Gure tribunalia Zela Nafarruan

6/ Arribada baneza Ongi manifestia, Lastima ez laitenik konpañian ezta: Bi aldetarik tiroka Gure errekesta, Kosta aize bateki, Lur barna tenpesta, Han ikusi ginuen Terribleko besta.

12/ Fite konsolatzeko Gaizki abiatu, Desfortunak holako Seinaleak ditu: Gu ere guardiara Zortzi arribatu, Gidari berriekin Bidiari lotu, Jeneralari behar Zela presentatu.

18/ Bertze bi egunetan Gero Mondragora, Irugarrena pausan Dezagun ohora; Gau erdiko jaikikir Bidiari gora, Guri beti bezala Hiltzia gogora, Nonbaitereko ditxa Gabeko denbora.

24/ Nafarruako seme Kreatu mundura, Probintzian penetan Ibilu ardura; Arribaturik ere Gure eremura, Mila barbaridade Eta arrangura: Purgatoriotarik Sartu infernura.

Lesaka'tik

BERTSO BERRIAK MUJIKAK JARRIAK

Lurralde ontako txokoetan, ta, erranen nuke, baita, Euskal-Erriko txoko guztietan ere ezagun dala Mujika jauna. Euskaldun jatorra, lagun gogorra, bertsolari bizkorra.

Nun euskal-jai bat, an Mujika jauna. Lertxundi, Laboa, Iriondo, Txalaparta, Irigaray ta beste gañekoak (gaineoak) oso lagunak omen ditu ba. Etxekoak bezela.

Asteasutarra jaiotzez, Lesakan bizi da azkeneko bost urte oketan. Bere indarrez berpiztu da «TABORAK» taldea gure erri ontan.

Ez aspalditxo, «Tele-bote» aldean alkar iztatu giñen. Ordu artan eman zizkidan bertso eder ok. «Nai nuke lesakarren batek bertso okeri erantzuna emango balioko, bide berez», erraten zidan berak. «Nai nuke lesakar bertsolari zaleak sasoiutzea bertsoetan, «PRINCIPE DE VIANA» aldizkari edo errebitaren bidez, etxe guztietara alletu dedin eben grazia, lesakar ta euskal bertsoen grazia».

Ta, ala da. Zergaitik ez? Ala, ia nork erantzuton dion bertso okeri.

Milla beatzireun irurogeita amargarrengo urtean zer gertatu dan esan bear det nik Lesaka'ko partean. Arriturik gelditua naiz joan dan ostegunean; Bertso berritan jarriko ditut, zaudete pixka batean.

Iru neskatxa etorri zaizkit joan dan feri egunean, oiei entzuten egondua naiz gutxinez ordu batean. Mutil elduak banebizkila ugari aldamenean, aber aiekin ezkonduzko modukoik ote zeikean.

Emen jaiotze ta aziak gera gazte denbora guzian joan daneko ogei urtiak pasiak extranjerian. Zer aldakuntza billatu degun etorri geran garaiian; pensatzen gaude ez ote geran sortu giñaden errian.

Maiorazgorik ote zeguen oien bigarren tildia, naio genduke baldin guziak ezkonduak ezpada. Aspaldi ontan ikusi degu nolakua dan kalia, baserri txo bat izan ezker guretzat ere obia.

Ez pensa gu gaudenik oraindik aldrebes edo narratsak, edozein gazte izan lezazke guk ain besteko akatsak. Bakardadian lagunak gabe arkitzen gerade otzak galai eder bat sortzen bada re moldatu ditugu ortzak.

Ori esanda oitako bati ixuri zaizka malkuak uste al dezu gu ez gaudela eskontzeko modukoak? Gu oraindik edozein gera gizon batentzat naukuak milagron baten bitartez igual sortu litezke frutuak.

Nik ere zerbait esan biar da asia nizan izketan, olakoakin uts-egitia errexago da askotan. Nere ustetan eskontza lanak obiaki dira gaztetan, orain prisaka etorri gabe ez-altzen duten bestetan.

Irutatik bi zapuztu zaizkit kopeta jarriaz illun, uste al dezu guretzat moukoik ez tala izango inun? Orain dala ogei bat urte ugari asko baginun, bizirik jango ezpagnuzten extranjerira jun giñun.

Bi oraindik etziran zarrak lenbiziko buruakiñ irugarrenoi ezkontzen bada orrek badaki zer egiñ: iru edo lau izkuntzatar bildurrik gabe itzegiñ, inoiz erriatan asitzen bada ezta izango atsegiñ.

Esaten zuten: gu ez gabilza batere arrokerian, ez ote da ba inor izango guk biar degun garaiian? Lengo edertasun ura ez baña oraindik gaude sasoi, serbiziuan egingo degu joaten geran tokian.

Esan zidaten: errian bertan galdetu zazu lenengo negua da-ta orain mutillak kanpora ez tira jungo. Erantzun nien: naiko lan txarra, jarri dazute oraingo, alegia eingo nuala baña seguru ez tala izango.

Amabi garren bertso onekin bear nuke erabaki urtean eran dirua ere eukiko dute aurki. Ia, motellak, neska oientzat izan zazute erriki andre jatorrak atera leizke probatu arte, nork daki?

LESACA, 1970'ko Ilibeltza

25/ Infernu bat in daike Españolezkua, Ez dute ikusi nahi Presuna justua; Nola zerbitza diron Jendiak gustua? Bete errespetatzen Dute injustua, Lur huntan dugulakotz Gobernu gaistua.

Montañesak girela Oro traidoriak, Martier finitzeko Emenez odriak. Arrasatu balitu Enperadoriak!

29/ Zortzira, ehun palo Ordenatu zauten, Duda niz halakuek Arimarik bauten; Ez dakit nehorik ere Sinetsiko nauten, Zenbat purgatorio Erakutsi zauten! Bizi giro aurten.

30/ Gure libertatia Ongi etorri dela! Lehen ikusi dugu Denbora krudela, Estima dezagula Gure amodio fidela; Pena duten guziak Konsola ditela, Atsegin duteneri Egin guri bezala.

26/ Gobernariaren kontra Erreklama naite, Behar den erregelak Ez dute maite; Jende miserabilia Arrobatzen dute, Pena da irautia, Erran ahal daite Afer mantentzen da Sobera tunante.


27/ Tunantekeriako Arraza guzia, Damurik utzi behar Munduko bizia! Odolian dutela! Beren noblezia, Negoziatzen dute Mila malezia, Larrutu nahi dute Jende buluzia.

28/ Nafarruako serbil Lepondo gorriak (1), Luzifer lotsa diro Haren koloriak;

(1) Nafarruak ba ditu Mendi-alde eta Erribera. Beherekoerdako gu "montañesak" gera. Ez da euskeraren gora-bera bakarrik: askotan aragonesekin ikus-teko gehiago dute gurekin baino. "Nafarruako serbil lepondo gorriak", Bordelen bertutan erriberakoak dira; "montañesak" berriz, euskaldunak.

2/1 Ekaina = Junio. (Jose Mari Satrustegi apez jaun maiteak argitaratutako «BORDEL bertsolari» liburitik hartua).

San Migel Garikoitz



Orixe'ren Meza-liburuak auxe dio saindu untaz bere eguneko Meza-ren asmentan: «Ibarran jaio zan, N-parroa barranean, 1797'garren urtean. Lenik nekazari, gero apaiz egin zan. Jainkoaren eta Eliz-nagusien esaneko, au izan zun betiko leloa: **Ona ni emen, Jauna, zure naia egiteko gertu.** Jesusen Biotzaren izenez, Betarran'darren Lagundia erailki zun. 1863'garrenean il zan, eta Pío XII'garrenak Santuaren Sailean sartu zun 1947'go Garagarrillaren 6'an».

— 0 —

Santu au, beraz, gure aurride ta laguntzale. Euskalerrian lan eginez bizi izan zen beti. Donapale, Kanbo, Baiona, Akiz, Betharran, izan ziran

bere lantoki nabarietak, naiz bertze euskalerrietan ere edatzen zuen maiz aski ona.

Guratso nekazari behartsuegandik etorri zen mundure: ta bere bizitz guzirako laguntzat artu zuen, Kristok bezala, behartsu izete ori.

26 urte zituela, Abenduaren 20 batean egin zen apez: ta Kanbo'ra bialtzen go gotzaiak. Baña gero Betharran'en sartuko ditu erroak: ta andik edatuko du bere biotzeko ontasunaren ta sendotasunaren sugarra.

An asitako lan ederrak iraun behar du, sortuko duen Lagundiak emanen dion bizi iraunkorrakin.

Iruogei ta sei urtetan, adinez baño lanez geiago ezinduta, iltzen da, «**Ona emen ni: bidali nauzu**» azken aldiz erranez.

— 0 —

Pío XII'garrenak Sainduen mallan dela aitortu zakun, naiz (ta ez daki-gu zertaz) euskaldunok deus guti iakin gertakizun untaz.

Laister datorkigu Lorailaren 14. Gure Garikoitz Sainduaz oroí gaitzen egun ortan.

Eta, begiramen guziekin bai, baña Euskalerriko Eliz-Buruei egin behar genieken erregu bat: aspaldiko gure saindu xarrak gorensten ditugunok, ia noiz asten garen gorensten saindu euskaldun berriak: xarrei otoitz ta otoitz ari garenok, ia noizko dauz-kegun berrientzat gure otoitzak. Ne-keak arinduz, atsedean lengo gure saindu xarrei: gure eskekin lana emai egun orai koei.

ARITZ

IKASI, MIKASI...

¿ILLERAZI BAÑO GAIZTOAGOA?

—¿Zer izena jarriko diogu? —diote senar emazteak, Jainkoak emanda, seme alaben bat jaiotzeko denean.

—¿Zer izenburu jarriko diot? —diot nik idazkai berri asmatzen detanean «PRINCIPE DE VIANA» rako.

Nere ustez, artikulo baten izenburuak azaldu bear du, itz gutxitan, barnen deraman mamia, irakureai jakin naiez jarriaz.

Au ola delarik, lantxo onen izenburua ikusita, batean batek, dagoneskero, esan izain du: «Norbaitei, ¿illerazi baño makurreagorik egin al dezaioke?». Jesukristok berak, erantzuten du galde oneri:

«Ez bildurrik izan gorputza illarazi bai, ta anima ezin illarazi dutenai; bildurrago zakioke gorputz-animak infernurako galduazi dezakeneri». (Mat. 10-28).

Erokeri aundia da, bada, gure ta besteren animak galtzeko bidean jartzea.

—Anima galtzen duenak —esango dezute—, norberak galduko du.

—Egi da. Baño egi da, ere, lagundu dezakiegula, batez ere umiai ta gazteai, anima salbatzeko edo galtzeko bidetik jarrai dezaten.

«Ni siñisten nauten txikitxo auetako bati gaitza-bidea erakusten dionari, obe litzaioke asto-errotarri bat zintzilika jarri lezaioaten, eta itsaso zabalean pulunpatu lezaten. ¿Zorigaitz munduari eskandaloangatik! Eskandaloak etorriko dira noski, baño ¿doakabea eskandaloa dakarren ura...! (Mat. 8-6).

Kontun iduki, ez bakarrik tximiñuak, baita umeak eta gazteak, ere ekusten dutena egiten dutela.

Ara, emen, gertaketa batzuek.

MUTIKO BATEK, BERE ANAITXOA ILTZEN DU AXURIA BEZALA

Borda baten bizi zen familia bat: senar-emazteak, sei urteko mutiko bat, eta urteterridiko anaitxobat. Biaramonean jai zutela edo, etxeko nagusiak il omen zuen axuri bat. Bitartean, mutikoa egondu zen begira begiak zabalzabal zituela. Gero, senar-emazteak, errira zerbait erostera joanda, etxeratu zirenean, arkitu zuten mutiko kozkorak bere anaitxo, aitek axuria bezala, maien gañen jarrita, ilda iriki zuela...

ZERGATIK GALDU ZUEN FEDEA BERSOLARI FAMATU BATEK

1872'ko urtean, il zen Bienan, Franzisko Grillparzer, Austriako bersolari famatua. Mutiko zela, oso txintxo ta elizarakoia omen zen. Ez bakarrik igandetaz, baita astegunetaz ere, joaten zen mezara ta atsaldetako arrosariora. Amasei edo amazapi urte zituela, bere aitek. Bienako abogadu ospetsuak, deitu zituan lagun batzuei bazkaltzera. Bazkal ondian, emakumeak sukaldetako lanetara ta mutiko ta neskatoak jostaketara joanda, gizonak bakarrik gelditu ziren, edan eta edan solasten. Noizpin bein, gure mutille aditu nai izaten zuen, giltzaren txulotik, zer zioten gizon zentzudun aiek.

—¿Alajañe, gizonak! ¿Au dek ardoa! —zion batek.

—¿Edan dezagun, bada, denen osasunerako —bigarrenak.

—¿Bai al da mudu ontan ardo onen gozamen alakorik? —irugarrenak.

—¿Ez mundu ontan; ezta beste munduan, ere...! —laugarrenak.

—¿Edan, gizonak, edan bizi geran eskero; etzeok beste mundurik eta...!

Au esan zuena, etxeko nagusia zen, mutil gazteren aita...

Gabeko amarretan, argia joaten denean, etxe guztia illunbetan gelditzen den bezala, ala gelditu zen mutiko gizagajoan anima. Ordutik etzituen mugitu bere ezpañek, Aitagure bat ere erreztatzeko. Etzen bein ere elizera joan. Ezta azkeneko orduan ere, etzituen artu izan nai Elikekoak. ¿Eta, ola il zen gizagajoa!

ARA ZER ZION EREJE IZANDU ZEN APEZ BATEX

Aspaldiko istoria da.

1.045'garren urtean, Tours, Franzisko Berenger izena zuen apez bat, asarretu zen bere obispoakin. Oso jakintsua izan bear zuen apeza, baño, bere jakintzeakin itsututa, erori zen erejian. Bere itzaldietan eta liburuetan, barratu zituan erokeri franko: Jesukristoren gorputz eta odol santua etzau-dela meza santuan, eta olakoak. Ogeitamar urtez bizitu zen gure elizetik kanpora, baño noizpait Jainkoak biotza ukitu zion eta biurtu zen bide onera. Pakeak egin zituan bere obispoakin, bere aurrean ukatu zituen gaizki esan ta idatzitakoak, penitentzi gogorra eginda, il zen lauetan ogei ta amar urte zituela. Elizekoak artuta, esaten omen zuen:

—«Nik siñisten det Jainkoa miserikordiz azkengabea dela ta barkatuko dizkidala nere pekatuak. Baño, ¡¡nere kulpaz erlijio egiazkoa utzi zutenak, eta aurki infernura juan zirenak...!!!

Au esanez, negarrari ematen zion.

Ta, arrazoie zeukan negarrari emateko.

EZ IÑOR ILTZEA, EZ IÑORI KALTERIK EGITEA

Agintzen digu Jainkoan Legeko Bostgarren Aginduak. Baño gorputze illarazi baño anima illaraztea, pekatu aundiagoa da.

¿Gogoan artu, batez ere zuek, senar-emazteak! ¿Ez illarazi zuen seme ta alaben animak, zuen ejemplo txarrakin!

Gogoan iduki, zuek, itz zaharrak botatzen dituzutenak, birau ikaragariak esateko oitura dutuzutenak, soñeko motxakin zarabiltzetan, jostaketa zikiñetara ta zine txarretara joan eta bestiak eramaten dituzuenak.

¡¡Zuen eta bestien anima infernurako bidean jartzen duzue eta...!!!

A. ASTIZ ARREGI

AGURRA

Irakurle, inoiz denbora luzerako etxetik kanpora joan al zera? Etxetik urruti bizi ba zera edo noizpait bizi ba ziran, ba dakizu zer dan agur bat egitea.

Agurra erdi iltzea edo beintzat erdi puskatzea da. Au gertatzen da nai ta naiez toki edo senide edo lagun maiteak utzita beste alde batera joaten geranean. Gauz, toki edo lagun maiteak uzten ditugunean erai puskaizen gera, gu aide batera joan eta biotza beste batean uzten degulako. Benetan oso illuna da ori, bi joaten direnarentzat baitare gelditzen diranentzat, baña batez ere joaten direnarentzat. Gelditzen diranak bat gaitzen dute, joaten danak berriz danak gaitzen ditu eia oiotza geiago urtzen da. Orregatik agurra illuna ga. Zenbat negar eztra izaten agurretan!

Iparragirre'k abestu zuan «gazte gaztetatikan erritik kanpora...». Asko, oso gazte ateratzen dira erritik kanpora ikastetxeren batera sartzeko. Aunditxoak ere ba dira lan billa edo gudaritza betetzera urrutira joan bearra izaten dutenak. Naiz ain illuna ez izan, ezkon berriak ere asko izaten dira etxetik eta askotan erritik urrutira aide egin bear izaten dutenak. Geienetan urrutirena joaten diranak monja eta pralleak ikusiko dituzute. Joatea gauz bat da, baña noiz biurtu? Orregatik da triste edo illuna joate ori. Ezta gure biurtuko geran, edo noiz biurtuko geran edo biurtzen geranean billatuko ditugun gure maiteak zalla egiten aa agurtza. Ba leiteke ez biurtzea edo biurtzean maite ditugunak ez arkitzea. Guk ziur ziur jakingo ba genduke zer gertatu bear dan, ez giñuke ainbeste negar malko ixuriko.

Agurak batzuk erraxak dira, beste batzuk zallak. Agurak erraxak dira gertu edo denbora gutxi joaten danean. Agurak zallak dira urruti edo denbora askoko joaten danean. Biotz biguñe-koei negar malkoa errax ateratzen zaie naiz gertu naiz urrutira joan. Biotz gogorrekoei berriz bein ere ez. Barko edo urontzi bat ateratzekoan eztezute bein ere ikusi? Biotz biguñ eta gogorrekoei alako tokitan ezagutuko dituzute.

Agurtu bear zeratenean luzeak ez izan. Agurra luzeak miña luzatu egiten du. Miña motxago izateko lenbizi zallenen agurtu eta gero besteak. Ala ere naikoa miñ izango dezu.

Asko batez ere biotz biguñekoak negarrez asten dira eta ez tute itzik azkenengo momentu ortan, eztarria itxi egiten zaie. Alako agur-rrak gutxiako eta obe.

AGUR JAUNAK, AGUR TERDI.

FELIPE ARAÑA

BERTSOLARIAK GERNIKA'N

Ontzako-urreak Lopategi eta Aspillaga'rentzat

Aurretik esana zen bezala, il onen 4'an Gernika'n egin zan bertsolarien sariketa bat.

Lau bertsolari ziran autatuak: MATTIN eta XALBADOR alde batetik eta LOPATEGI eta ASPILLAGA bestetik.

Aspaldian ez gendun ikusi ain-oste jende bertsolari bilkura batian.

Bizkaí'ko erri aunitzetatik, berdin Gipuzkoatik eta ere Naparruatik etorriak ziranak ba-ziran. Batez ere bertsolari asko; Lazkao-Txiki, Lizaso eta Lazkano bere emazteekin eta... eta.

Begi-kolpe ikusgarria Gernika'ko frontoiak erakusten ziguna, bertan 2.000 persona inguru kokatuak.

BERTSOLARIAK

Denak zein baño zein obekiago aritu ziran goiz guzian, berdin irri saioan, berdin gai sakonetan.

Jendeak, aste-astetik, bizi eta gozoz txalotu zitun. Bertso bakoitzak esku zartarik aundienak ateratzen zituan.

Norbeitek irabazi bear... eta Lopategi eta Aspillaga'k irabazi zituzten eskeintzen ziran bi ontzako-urreak.

Baño orrek ez du esan nahi, inundiak ere, orregatik bai Xalbador eta bai Mattin beste egun batez ez dirala irabazle izango.

BI ONTZAKO-URRE

Saioketan bi ontzako urre eskeini ziran, Mexiko'ko bertso maitale den Martin Garcia Urteaga'k emanak

Ontzako-urre bat, Gernika'ko Arbolari iru bertsutan puntu geiago irabazten zituan bertsolarientzat zan.

Ontzako-urre au Lopategi'k irabazi zuan.—Bota zuan bigarren bertsoa ikaragarri ederra izan zan eta frontoi guziak berebiziko txalo eta orruakin onartu zuan. Gernika'ko frontoiak entzun duan txalo zartarik aundienetako bat, segurik. Gure iritzi, bertso orrekin irabazi zuan Lopategi'k ontzako-urrea. BIGARREN ONTZAKO-URREA, Aspillaga'rentzat izandu zan saioketa guzian, Lopategi'ren ondok, puntuazio geiena izandu zualako.

ASPILLAGA'ri suertian egokitu zitzaion gaia zen: BERTSULARIA ETA EUSKERA. Zein baño zein obeak izandu ziran Aspillaga'ren bi bertsoak.

Aspillaga'k bere «eguna» duan, eta aspaldian sasoiari dago, etorrialdi izugarria du.

Paris'en, meza denboran, komunioren ondok, Lopategi'k aurretik gertatua zela uste zuen, bertso izugarria bota zuan.

TELEBISIOA ETA EGUNKARIAK

Gernika'ko frontoiera Bilbo'ko egunkari batzuk bere ordezkariak baldi zituzten, bilkuren berriak zabaltzeko.

Bestiak beste «HIERRO»... «El Correo...» eta orain goguan ez ditugun beste zontbeit.

Baita ere bertara azaldu ziran Telebisioko gizonak, eta uste degu Gernika'ko bilkura leku askotara zabaldua izango dala.

Egun ederra benetan bai bertsolarientzat eta bai bertsolaritasunarentzat.

EPAIKETA

Bizkaitarrak epaiketarako xixtema berri bat sortu digute

Gure iritzi, argia eta garbia da Kontuan izatea merezi duana.

Gernika'ko epailariak ziran: LA-FITTE ETA ITZAINA Lapurdi'tik, eta ALFONSO IRIGOYEN ETA MUNIATEGI bertsolaria Bizkaia'tik.

Harizpe



ERRIZ-ERRI



BAZTAN

EGUBERRIAK

Aurtengo Gabon eguneko ilunabarean Elizondo'ko karriketan bozkario nabari zen, bozkario sanoa euskal kutsua berakin zaukela. Aurten beñere ez bezala «Olentzero» festa izan dugu Elizondo'n, herriko gazte multxo bat euskal-abestiak kantatuaz, txistulariak aintzinean eta «Olentzero» soñean zeramatela, karrikaz karrika ibiliak dira Elizondo'ko herria pozkarioz bete dutela. Denbora berean Miserikordiarren alde ere eska egin zuten, neskatza gazteak atez ate sosa biltzen zabilteza. Yendeak ongi eman zuten eta Miserikordiak laguntza ederra izan du.

Gure herriko gazte erdaldunduen bihotzetan euskal-giroa sortzea lan ederra da, euskal-kantak erakustea eta oitura eder hoiek piztu eraztea bai lan goresgarria. Zorionak gazte guzietan eta gure goresmen bizenak irakasleari.

— 0 —

«Baztandarren Biltzarra» deitutako batasanak antolaturik ospatu da Elizondo'n «Semana de la Juventud» deritzaion kultura festa. Egin dituzte itzaldiak, Gabon kantuetako Sari-keta, Meza moda berriko orkestarekin eta azkenean festa bururatzeko, afarria eta dantza Kasinoan.

Gabon abestietako leyaketak erre-kiste aundia izan zuten, kantari-talde aunitz aritu ziren eta denak ongi ari izanak dira. Lendabiziko saria Iruritarrek irabazi zuten eta hoi-entodotik, Arrayotz, Elizondo eta Arizkunen. Aurren arteko sariketa Elizondo'ko neskatikoek erdietsi zuten. Sariketarik kanpo Elizondo'ko korala ere aritu zen eta hauen kantaldia beti bezala, ongi apaindua eta denen gogokoa.

Itzaldietaz eta erakutsi zuten «filma» eta bai Mezaz ere zerbait erran dezagun: Zenbait itzaldi akats batzuk izan omen dituzte; **itzaldi guziak erdaraz** eta gañera erdal-giroa berekin zauketela, ez ordea gure eskualdeko gazteriarri dagokion gaia. Honekin ez dut erran nai itzaldi guziak eskuaraz behar zutela, bañan bai bat bederen, **baztandar herrietan ez al da ba euskal-dunik? Eta nafartarrak baldin bagera zein dan Nafarroa'ko egiazko mintzaira?**

Meza ere arras erdalduna eta ez egokia hemengo. «Filma» ri buruz eginikako elkar-izketak sortu zuten eztabaida, eta arrazoien zuenari ixilazi eta agintaria garai.

Akatsak dituzten gauzak ez dute laudorioak merexi.

ENTZULE



ARALAR'KO AIZEAK

Ez oso onak aspaldi ontan, alajañena;

Nolako mutur beltzarekin agertu zaigun aurtengo negua! Azaroaren erdian edo, erakusi zigun sudurra, ta arrezker ez zugu, esateko, egun onik izan.

Azaroaren erditsuan 13 grado zepropetik, Aralar'en oso gutxitan ikusten dana ikusi dugu aurten. Eta ario ortara joan zaizkigu egunak (eta bate ere gauak) joan uaneko bi illabete ontan: otza ta elurra; elurra ta otza.

Ez gaitu ordea asko ikaratu negu sarrera bortitz onek. Negu beltzari aurpegi emateko prest ginauden aurretik sanmigeldarrok, naiko egurra egurtegi, ta jatekorik aski janaritegi.

Guk ere esan genezakean, esaera zarrak neguari buruz diona:

Elurre melurre!
Eztiat ire bildurre!
Baditiat etxean
Artoa ta egurre!

Gu ezeze, badira beste batzuk neguari bildurrik eztiotenak. Mendigoizaleak, adierazbidez. **Abenduak 21, festa pait-pait bat egin zuten San Migel'en Nafarroa'ko mendigoizaleak, urteari agur! esateko.**

Aspaldiko oitura dute. Mendigoizalea berez gizon sanoa da, bai gorputzez, bai animaz. Oso Jainkoizalea geroenat, Jainkoa bere eginkizunetan argi eta garbi ikusten oaitu. Izan ere, mendiek eta muñoek, ortziak eta izarrek, iruzkiak eta illargiak, itxas-orrak eta ibai doñu eztiak, iturri ta errekek, euri ta elurrak, aize ta bisutsak, tximistak eta kazkarabarrak, denak aobeteen Jaungoikoaren aunditasuna ta ederra go-raipatzen dute, ikusten eta ikertzen dakitenentzat.

Orrengatik da ain Jainkoizale mendigoizalea.

Orrengatik Nafarroa'ko mendigoizaleak, urtero, urtearen bukaeran, jai aundi ori egin oi dute. San Migel'en, Jainkoari eskerrak emateko eta urteberriari indarrak eskatzeko.

Meza nagusi ederra amaika t'er-ditan. Euskeraz, Jakiña. Eta biotza arrotzen eta ezitzen zitzaigun, Iruña'tar gazte askok ziur eta sendo **euskeraz** erantzuten zutela ikustean. Nork pentsatu olakorik garai batean?

Meza artean, beste urteetan bezela, emaitz edo erregalo polit bat egin zioten San Migel'go elizari, eskuikusi, kantu ederrak ezpañetan ta otoitz beroak biotzetan.

Apezak urteberri ona opa zien denei. Ta festara etorri ezin izan ziranak ere aipatu zituen, batzuk bizia mendietan utzi zutelakoz; beste batzuk, politika dala ta, giltzapean atzi edo preso daudelakoz.

Meza ondoan, gosari lege bat egin da gero, Trintate zelaiean euskal giro polit-polit bat eratu zan. Txistulari talde bat bezegon; soñua jotzen asi ziran ta, zer esanik ez, gazteak krikitin, ujuju ta zantzo, dantzari ekin zioten, irrirtzika ta saltoka. (Ixo, ixo!) Apezaren baimenarekin egiñen zuten dantza, sobraade, besteetan ezpaitu uzten onek San Migel'en, ez soñu, ez dantza).

Ta jai-egun ura oso-osoa jai izan zedin, gure Jainko onak, aspalditxo ez bezela, egun argi dir-diratsu bat eman zigun, ozkarbi urdin-urdin batean, iruzki eder batek dir-dir zegigula, mendigoizale guzieren pozgarri.

Benetan jai ederra alde guzietara. Egun gogoangarria!


MENDIGOIZALEAK! Jarrai zuen bideetan!

Ekin aldapai, aldapak goitibera berarekin du ta!

ARTXUETA'ko UNAIA

Se autoriza la copia para la investigación. © GOBIERNO DE NAVARRA

ZERRI ILTZEA



Ez gera euskaldunok esne urrupa batekin eguardi arte konformatzen geranak. Ez gera euskaldunok, ezta arrai pixka batekin ere, bazkal orduan. Ez; etziran alakoak gure aintziñekoak. Ezta gu ere. Gure ertziak jaungoiko txiki batzuez ditugu. Tripaundiak, eguberri garaian erri batzuetan sortzen dan «olentzero» orren antz. Ez mirginak; ondoian zaleak, baizik, zakar izanik. Gezur ote?

Ortiz, euskaldun oitura zar batzuek. Oriaz sortutako oitura izango da, «zerri iltzea» au ere.

Ez dut oitura auxe geiegi ezagutu. Badakit oraindala amar-ogei bat urte, Euskalerrri guzian oso banatutako oitura zala. Oitura edo... Baño, garai artan, nun egongo ote nintzan ni?

Gaur, oraindik baserri batzuetan, erritik urrutu arkitzen diran baserri oietan batez ere, zerria iltzen da.

Goizeko sei ezkillak io berriak diralarik, negu beltzeko orma ta izotzak belarsoro ta «kina» guziak zuritu ta zigortuak ditularik, alako baserri batean etxetarrak erne. Lau-bost gizaseme azinda lekura dijoaz. Emakume baten bat, etxeoandrea, aiekin, ontzi bat besapean. Alkar izketa. Mai labor bat leku txukun batean.

Ia; azkatu dute zerria. Zerri zuri; bizkar zabal. Astirikan gabe gizendu naiez eukiko zerri oietik. Azkatu dute, bere «istegi» tikan. Beldurka. Ote daki zer eidu zaion?

Goiz ixilla zapuztu da. Azinda leku artatik zerri garraxi ikaragarriak. Noiz-beinka gizon oiua: kontu, euki!... Ta... Pixkaka, garraxiak moteldutzen ari dira. Azkenik, ixil. Berrito gizon alkar izketa.

Ez geiago garraxiarik. Ez geiago gurrinkadarik (kurrinkarik). Zerria, illa, alki edo mai mots aren gañean. Burua uker dauka. Bizia, iltzallien nabal zorrotzak egindako ebaki artatik eskautu zaio. Baten batek erranen zuen bezala: «goizeko laño otzak berekin darama azken gabeko izar lekuetara».

Artean, odolakin betetako ontzia sukalde aldera darama berekin etxeoandreak. Gizasemeak bertan geratzen dira. Baten batek zigarrotxon bat piztuko du. Bei, beste zerri ta azindak, txuturik, arrotuak dabilta alako garraxi ta iskamillakin.

Atarira deramate zerri illa. Beriala, iratze puxkada batekin tapatuko dute. Zertarako? Ba, suak, iratzia errez, zerrien ille zakarra ere erre dezan batean. Alde bat. Gero bestea. Onela, ille aundiena auts biurtu daiarik, garbiketa, aragi ala urdai gorri-gorria agertu dedin. Egosi-erre usai bat banatu da.

Nabalakin barrenak idekirikan, giltzurriñ, gibel ta on egin leizken guztia alde batera; ondarrak, bota. Urdai azpiko, egal ta puxkaa aundienak, aizkorakin zatitua, gatzakin ongi bilduak kutxa batean sartuak izango dira, iru-iau egunez idorturik, txukatuturik.

Goiz erdi aldera, sukalde zoko artan, odoikiak egosten ari dira «pelpel». Batek orratza kokkor batekin, noiz-beinka, «xulutzen» ditu «ez deditezen lertu», berak digunez.


Arratsalde inguruan, errira jetsi bear da: «veterinario» jaunari odolki ta zerri illen beste puxkak eraman bear zaizkio, begitu dezan, bere jakinduriez, ian-gai arek gaitzerik ote duen. Alaxe ere, odolki, urdai zuri ta beste zerriak (zerri puxkak), eramaten zaizkio auzotar aieri. Ordu egokia benetan egindakoak eskertzeko. Zorritzarrez, urtetik urtera gero eta gutxiago antolatzen dan ordua auxe, zerria il arren. Dirudi auzotarrari ezdagola ezer eskertu bearrik; dirudi aien bearrean ez gerala iñoiz arkituko. Or, gure urrutiko baserrietan ere sortua, or gaurko gizon arruen sentimentu motzak. Me-kanika garaieko sentimentu otzak!

Ta, auzotarrak danak alkarturik, arratsalde guztiko bestakin, irrirtzi ta soñu, zerri iltzoko eguna ospatzen zuten garai ura? Al-kartasuna deitu leike oneri? bai, ta, ez.

Gaur ezda atzo Gaur ezda arratsalde guztiko jaiarik egiten, zerri iltze egunez. Gaur... aiiñ moteldutako oitura da zerri iltzea!! «Erositakoa otea dut», makina batez errana. Baño diot: ote dakigu gaurko egun ontan, illargi garai ontan, ote dakigu zer dan otea? Zer dan ona?... Zalantza!!

ANTON

AIZKOLARIAK



Errege egunean Donostia'ko Trinitateko plazan aizkora apostu eder bat yokatu zuten. Erramun Latasa sunbildarra eta Arria azpeitiarra buruzburu ari izanak dira, bakotzak seina kana-erdiko onbor ta bertze seina 45 ontzako ebaki beharrak zituztela, biek batean asita lan guztia zeñek lasterrago egin. Latasa'k izan zuten egurra aukeratzeko eskubidea eta onbor bigunak ekarri omen zituen plazara, hortaz bada bi aizkolariek eginikako marka guzieren ganekoa izandu da. Gudukaldi ederra eta aski atakatu, bi mutillak beren kuraia ta ahalmen guztia han erakutsi zutela.

Latasa'k irabazi zuen apostua, Arria'ri 28 segundoen alde atera zio-larik. Sunbildarrak berrogei urteak beteak ditu bañan halare oraindian hoberenetakoa dugu. Errege eguneko lan klase baterako zenbat dira bera ainbatekoak? Bai ote da norbait? Marka izigarri ona egin omen zuten, garai batean siñetsiko ez lutekena. Bainan hor daude erlojuak aizkolarien eginkizunaren lekuko.

Hemen egurretik egurrera aizkolarien markak:

LATASA		ARRIA	
1 ... 45	ontzakoak ... 1 minutuz	1 ... 45	ontzakoak ... 1 minutuz
2 ... 45	» ... 2,04 »	2 ... 45	» ... 2,04 »
3 ... 45	» ... 3,13 »	3 ... 45	» ... 3,34 »
4 ... 54	» ... 5,25 »	4 ... 54	» ... 5,32 »
5 ... 54	» ... 7,37 »	5 ... 54	» ... 7,35 »
6 ... 54	» ... 9,43 »	6 ... 54	» ... 9,50 »
7 ... 54	» ... 12,03 »	7 ... 54	» ... 12,15 »
8 ... 54	» ... 14,22 »	8 ... 54	» ... 14,35 »
9 ... 54	» ... 16,27 »	9 ... 54	» ... 16,50 »
10 ... 45	» ... 17,49 »	10 ... 45	» ... 18,22 »
11 ... 45	» ... 19,25 »	11 ... 45	» ... 19,43 »
12 ... 45	» ... 20,50 »	12 ... 45	» ... 21,18 »

PILOTARIAK

Urtarrilaren lendabiziko igandean eman zioten asmenta «Yoko-Garbi» ko pilota Xapelgoari. Partidak Oronoz'ko Maristen pilota plazan yokatzen dituzten eta Xapelgo hontan 24 pilotari-bikote ari dire iru malletan bereziak, lenbiziko, bigarren ta irugarren kategoria, malla bakotxean zortzi bikote direlarik. Gure eskualdeko eta mugaz-bertzaldekoen arteko zein-gehiagoketa dugu hau eta hemen bilduak ditugu bi eskualdetako «amateur» deitutako pilotari hoberenak eta xixterazko yokcan ongi ari direnak.

Hemen pilotariak nongoak diren: Ezpeleta, Bayona, Hendaya, Baigorri, Hasparren, Ainhoa, Donibane-Lohitzun, Urruña, Irurita, Oronoz, NARBATE eta Arizkungoak. Anaien arteko Xapelgoa, Euskalerrriko amabi herrietako pilotariak elkarren artean yostetan hemengoak eta hangoak bat eginik. Azken partidak Martxoaren 22'an yokatuko dira eta bizkitartearen Oronoz'ko plazan igandero izanen ditugu partidak. Gauzak ongi gerta daitezela eta Txapela hoberenarentzat.

M. IZETA



LAZAIDE

Ohore guziekin egin berri dute Donostian Luzaidar baten aipamena. «Sala de Cultura Actualidades» delakoan Arrue jauna gure Bordel bertsulariaz mintzatu da. Jende asko bildu omen zen eta jende ikasia gehiena.

Jakina da nola egon zen gure bertsularia Donostian soldado. Bertsu garratzetan emanak ditu hango gertakariak. Doi-doiotarik atera zen bizirik, eta atsegin zuen bertsu emaitan. Bordeleko semea egon zen gazteluaz mintzatean haren kantia goratzeko begiramendua ukan du Euskaltzaindi-ko jakintsuak.

Eztaikit gure gauzak behar bezala estimatzen ba ote dakigun. Luzaide muga da eta izan ditu gertakari jakingarriak. Baita ere ba ditu bere gizon aundiak. «Manezaundi» ezagu-

tua da Euskalerrri osoan; eta 'Bordel' ezin da ahantzi bertsulari aundien artean. Hoieri ematen zaien ohorea, herriaren ohoretan da.

Donostiko hitzaldian eskatu zen 'Bordelen' bertsu bilduma Gazteluko liburutegian sartzeko eta, han egon zelako marka harri marratu batean ezartzea. Elitaie gaizki hori bera bere herrian egitea. Izango dira etxeak Luzaiden, Bordelen bertsuak sartu ez direnak; eta losa harri ederraren kokatzeko paretak ditu bertsulariak bere eskuz egindako bazterretxeak.

Denok poztu gera Donostiko berri honen jakitean eta 'Príncipe de Viana' aldizkariaren bidez eskerrak eman nahi dizkiogu Arrue jaunari. Egunen batez zerbait egitera abiatuko balitz gure herria, irabazia zituk zuk ohorezko alki bat.

Agian, laister izango da.

(«Príncipe de Viana» numero hon-tako Irugarren orrian BORDEL bertsulariaren «DONOSTIAN SOLDADO» bertsu berri famatuak argitaratu ditugu).

EUSKERAREN EGOERA

NOLAZ IRITXI GERA ONTARA...? ZER EGIN BERPIZTEKO...?

Egiten ari geran AUTOKRITIKA ontan, eta esanak-esan ondoren, galdera bi egiteko garaia etorri da.

Lenen: Zergatik eta nolaz iritxi da euskera dagoan egoera trixte ontara...?

Bigarren: Zer egin berpizteko...?

Eskuararen alde lan egoki bat egin nahi badegu, bi galdera oieri erantzuna bearrezkoa da.

Izan ere sendagille batek ezin lezaioke gaxo sendagai egoki bat eman, aurretik gaitzaren naturaleza eta gañera edo gibelekua... edo urdallekua... edo sabelekua dan jakin gabe.

Eskuararekin berdin da: Eskuara gaxo dago, arrunt eri: Zergatik dago...? Zergatik edozein erri txikienetako idazariak aitortzen eta salatzen digute, aurrak ez dirala geiago erri oietan eskuaraz mintzo...? Oraindiano euskaldun izandu diran erritan, zergatik ez da geiago entzuten...? Eta milla aldiz okerrago dena: Zergatik DAKITENAK ere... ez dira geiago euskeraz mintzaten...?

Exenplurik eman bearrik ez daukagu: Aski degu, belarriak erne, edozein Euskalerriko erritik igarotzera, esaten deguna egiztatzeko.

Nun dago beerakada negargarri orren errua...?

Gaurko zibilizaziaren erdian euskerak inguruko pranzes eta espainolarekin ezin burruka litekelako...? Edo, ez Estaduak eta ez guk euskaldunak, euskerari bear genioken atsa ematen ez diogulako...?

Galdera oientzat, iritzi bereko erantzun bakarra, nekeza da. Guk guria emango degu.

¡¡¡EZIN SINETSI LITEKENA!!!

Aurretik pentsaketa bat agertu nahi degu: eskuarak dauzkan eragozpen-etsai denak ezaguturikan ere, au da bat-batian burututzen zaiguna.

Betidanik, Altamira'ko arpe-zulotik asi ta... menderen-mendetan, erri aurreratuenetan agertu diran euskaldunak.

Gaur bertan, euren irabazbideko artu-emanetan... euren industri eta ne-goziotan, ain ongi gallendu diran euskaldunak.

Espani'ko Bankurik aberatsenak sortarazteko gai izandu diran euskaldunak: Banco de Vizcaya, Banco de Bilbao..., Banco de San Sebastián... Banco Guipuzcoano... La Vasconia... Crédito Navarro... Donostiko Aurrezki-Kutxak... Bizkai, Napar eta Araba ko Aurrezki-Kutxak... eta... eta... ¡¡MILLOIAK ETA... MILLOIAK!!! parrastaka irabazteko gai izandu diran euskaldunak.

...Amak bularra emanez, euskeraz muxukatu dituan euskaldun oiek.

Aiten-aitengandik datorkioten sendimendurik aintzagarrienari, bere izkuntz euskerari, irauzateko... EZ DIRA IZANGO GAI...?

¡¡Ezin sinetsia liteke ori!!!

AIN «DEGENERATUAK» OTE GAUDE...?

Gorputzari bi begiak bezala, gizonaren nortasunari ezarria dago norberaren izkuntza. Erri basati eta atzeratuenetan ere garbi ikusten da, sortzetik datorkigun lokarri estu ori.

Erri oiek ez dituzte, bear bada, euskerak dauzkan etsai denak ezagutu, ez eta ere ain gogorak. Baño urtetan eta urtetan erbesteko Erri eta izkuntzen menpian egon izan arren, erri oietako **batek bakarrik** ere ez du, ez bere nortasuna, ez ere bere izkuntza, ez galdu ez ukatu...

Euskaldunak, ain «degeneratuak» ote gaude, erri basati oiek naturale-zaren indar utsarekin egin dutena, ez egiteko...?

GIZADIAREN AURETIK GABILTA...?

Bear bada gizadiak denborarekin IZKUNTZ BAKARREKO egun bat eza-gutuko du: Errien arteko artuemanak erreztu eta arindu lezaken IZKUNTZ BAKAR bat.

Ori ala izatearekin, euskaldunak egiz esan genezake, gizadiaren aurretik gabiltzala, eta bestiak denborarekin egingo dutena, guk gaurtik bertatik asi gerala egiten: gure izkuntza baztertzen.

¡¡MILLOIAK!! irabazteko ez digu serbitzen: Zertarako gorde...?

Ikulluko zekorrek ere, naiko lasto eta pentsu izan ezker... ez dute beste ezerean bearrik.

LITEKENA DA IZKUNTZ BAKAR ORI...?

Ez sendimenduaren, eta ez kulturaren aldetik ezin litekena da.

SENDIMENDUAREN ALDETIK

Uste dezute Franziak eta Espainiak, esate baterako, euren izkuntza galtzera utziko dutela IZKUNTZ BAKAR orren alde...?

Jarraituko dute gaurko egiten dutena: euren izkuntzak ahal duten era guzitara zabaldu, eta... ahal duten beste guziak lurperatu bereak ezartzeko. Ez, sendimenduaren aldetik IZKUNTZ BAKAR ori ezin liteke amestu.

KULTURAREN ALDETIK

Kulturaren aldetik ere ezin pentsa litekena da. Pierre Naert, Sueziako Unibersidadean Professore denak esaten digu: «...el mundo no habrá de ganar nada por el hecho de que mueran las lenguas de los pueblos pequeños; por el contrario será pérdida para él. El reemplazar la diversidad lingüística actual por el número de lenguas llamadas «grandes», o también por una sola lengua, artificial o no, llevaría simplemente a una fosilización del pensamiento, sería una organización de la estupidéz». (Aranzazu aldizkaritik).

Berdin Dr. Hans Mukarovsky, Vienako Unibersidadean irakasle denak esaten du: «...el argumento de que las lenguas llamadas «primitivas», son un obstáculo para el progreso, o es un argumento de ignorancia o de mala fe...»

«...Tengo la sincera esperanza de que será entendido en las próximas décadas que la lengua vasca no es una curiosidad o un fenómeno marginal, sino un capital cultural europeo de la máxima importancia». (Unamuno y el Vasqueño, M. Ugaldere liburutik).

Oriek orrela, euskaldunak gure izkuntz euskerari galtzera uzten badiegu... Europa eta Mundu guziaren aurrin, nortasunaren aldetik, Erri «degeneratu» bat bezela agertuko gera.

Ez dago beste esplikaziorik...!!

Dr. Hernandorena

LURRA, ZIUTA, BELARRA

Landa polit batean gabiltz. Landa onek aspaldiko urtetatik zitu aberats bat dakar guztiondako. An, or ta emen zitu bera. Naiz landaren zatitxo batekoari, berekin datorkion belar batek alako zer bat ematen dion, gañerakoe-tatik nabarmentzen duena.

Belar onek deus guti balio duelakoan gaude geienok: ala ere, bere balioa badauka an, sortzen dan zatitxo artan.

Landaren zitu onaz baliatzen geran geienok, axolik ezta, urteak eta urteak eraman ditugu belar orri begiratze bat ere eman

gabe: «Onik ez dik: txarrak ere ez: paso!» «diogu gerenbaitan...

Landa-zaiak ordea lanean ari dira, landa ondu naiean; lurra ikusiz; bere sakontasuna negurtuz; azi onak autatuz; okentzat indargarriak bilatuz; belar gaiztoak kenduz;...

Ontan... belar ura!!! Lur zatitxo artan sortzen ta itxuraz seurik ain guti balio duen belarra!!! Zer egin? Iraupena eman? Erroetatik atera ta sutara bota? Bein betiko kasatu?

Landa-zai batzuk, berea duen lur zati ortarako on ta egoki

dala diote: bertze batzuk, landa guzian edatu behar litzakela: norbaitzuk, zañetatik ateratzeko ohea dala.

Eztabaida ta borroka onek irraitzen du, belar gaixoa batzuk beren lurretan zainduz; bertze batzuk, zorro aundi batean azia artuta, landa guzian barreatuz; nork edo nork, gerrontze guziak makurka minberaturik, ateraz ta sutan kixkaliz.

Landa-zai bakoitzak egin alak egin behar litzuke landa ontzen eta zitua obetzen, ortarako bertze landa-zaiekin ongi elkartzuz, landaren egizko beharretan ohar-tzeko ta landari ta zituari on zaien lanean zin-zinetan irrait-tzeko, belar batengatik landa aultzen ta zitu guzia galtzen utzi gabe.


Landaren zituaz baliatzen geran geienok, landa aultzen doaila ta bere zitua ttipitzen doala ikusiz, bertze landetara ta zitueta ioanen gerala, nornai gaur ikus dezaken gauza da, errazenera iotzen dugu ta zoritxarrez.

Utz pakean belar ori, ongi zaionak ibil dezan: an-emen landatzea, atsegín zait neri ere, ta kalterik iñori egiten diodanik ez dut uste!

Eta, landaren lurra, konpondu, konpondu; zitua, ondu ta berratu ondu ta berratu. Bai ta zituaz baliatzen geranok, mesedez, zituaren balio aundiaz ongi ohar gaitezen, lagundu, lagundu; zituaz baliatzen geran baño geiago baliatzeko.

«h» edo ez «h»; mintza, mintza euskeraz. Gañerakoa, ttun-ttun utsaren otsa naski...

IBARRONDO



GAZTE GERA, GAZTE...

Izenburu traketsa, esango du edozeinek «Uhin berri» izeneko poesi bilduma ikustean. Baño izenak asko esan nahi du gauzetan, eta honek den guzia adierazten du dagon lekuan. Ezpain zimurtze frango izango zen baztarretan, kezkarren lagun. Mendi zokotan bizi geranondako berria da itsasoko ur palastak adierazi nahi dituen hitz hau. Uhin ibiltzen dute beste batzuk. Molde berriko joerak, azken bolarek dakarren poesi gaztea esan nahi du.

Eta barnea zer? Ez da aisa ikusten. Nola esan! Lerrokada motzak, hitz erdika hortzen ikutua eta, askotan mina; ezin egonaren gazi bizi. Beste era batean adierazteko, ezta mendi sakonaren zurrumuru baregarria, ez goizeko intzaren ikutu xuri ametsgarria. Nik esango nuke baztarreko harri mordollotan hausten den itsasoaren asarrea dela.

Ez da idazle sayo bat; bakoitzaren lanak zatika, bazkal aurreko gogegarri txikia bezala emanak dira. Giro bilduma da. 1930-etik gaur arte sortutako joserak. Bost bat urte hauetako emaitza gordina. Alare ez dira adinez bezain berdinak denen jokabideak. Liburu bezala ezta gaurkotasun egin baten azken hitza; lorategi bat ere ez. Lantzen hasiak diren molde berrien ikusketak baliosa dela esango nuke nik.

Liburua ez da eztarrian gelditzen diren mordollo hoietakoa. Aisa irakurtzen da eta ulertzen. Lainoak la-peko soka muturrari lotzen da

zera sapaian utzi eta gizonaren teigehienetan. Bizikerak du izakerak baño lenago kezkatzen. Aurrera begira dijozenak, batasun zaleak, biarko gure gizonak begi onez ikusiko dute San Martin langilearen bilduma. Besteak, ez dute bildur izatekorik; amaren altzoan negar eta pozetan bizi izan den haur-tzoa, bizarra atera eta borrokako indarrekin ikustea aunditzen ari delako marka da; hori bai, aunditze

guziak berekin dituzte adinaren minak.

Norbaiten esan du, eta ongi esan ere, garbizaleen bolara izan zuela lehen euskerak; batasunaren aldi du gaurko uhin berriak. Dena da burruka eta ezin egona. Itsas zabal baretsua ekarriko omen dute gaurko ur nahasiak. Hala balin bide aundia ideki dio geroari San Martinen liburua.

SAGI

RIKARDO ARREGI SARIA

ONHARRIAK

1. Lanak euskera batuz idatzia izan behar dute, hau da, Arantzazuko erabakien arauaz eta «Lehen Euskal Hiztegi bateratua» ontzat hartuz.
2. Dibulgazio erakoak izan behar dute eta edozein gai har ditek. Makinaz idatzirik, bi lerroan behin, 100-en bat folioko luzaroa izan behar dute.
3. Lanak, zertifikatuta, «LUR editoriala, Villa Zutik, Paseo Arbola, San Sebastián» era bidali behar dira, egilearen izena, zuzenbidea eta telefonoa (badu) agirian jarriaz, 1970-ko Maiatzaren 31-a baino lehen, eta duplikatuz.
4. Saria, gabe geldi ditekera, 20.000 pesetakoa izanen da.
5. Juradukoak, Gabriel Aresti, Xabier Kintana, Ramón Saizarbitoria eta Ibon Sarasola izanen dira. Erabakia 1970-ko Abuztuaren 8-an emanen da aditzera.
6. Lan sarituaren jabegoa LUR-ek bereganatuko du. Publikatua izanen da «Hastapenak» sailean hurrengo «EUSKAL LIBURUTA DISKUEN AZOKA»-rako.

1969, Urrilak 28

LUR ERITORIALA-ZUTIK
Paseo Arbola-Donostia